

# Yosu'ren Yayotza

Aur txikitxo ta polita  
yayo yaku Bethlem'en  
goazen pozez ikustera  
goazen danok ien-bai-len.

¿Zer da bertan dakusguna?  
Aurtxo samur polita,  
otzez dar-dar aska baten  
eztauko zer yantzi ta.

Abeletxe baster baten  
Miren ta Yoseba'gaz,  
abere bi berotzeko  
dauz arnasa lurrunaz.

¿Ene eder oi; etzara Zu  
donoki-lurren yabe?  
¿Zelan zagoz kutunori  
iñon laguntzagabe?

¿Zeuk ez dozu piztu goyan  
eder-eder euzkia?  
¿Zer dagi bere Yauna'ri  
bialzeke argia?

¿Egaztiak Zeuk eztozuz  
apain yantzi ederrez?  
¿Eztozuz aran, muñoak,  
yantzi lora, bedarrez?

¿Txoritxuok lo zagoze?  
¿Lo zagoze gaxuek?  
Orain abestezpozue  
itxi betiko abuok.

—Txoritxuok ixil gagoz;  
ez dogu abestuten;  
¿Ez dantzuzuz ba gotzonak  
Yaun-Aurtxoa goraltzen?

“¿Aintza ta aintza Donokian  
Yaungoiko Altsuari  
gentza zoruna ludian  
gogo zintzodunari?”

Eguzkiak iges dagi  
Yosu yayo dalako;  
Argia dagon tokian  
eguzkia ¿zertako?

Yantzi barik dar-dar dago  
Yosu otz ikaragaz;  
nai daulako berotzea  
geure maitetasunaz.

Zatoz, Yosu biotzeko,  
zatoz maife gugana,  
geu-biotzok-eskintzera  
yun gaitezana Zugana.

Yaungoikoa Aur eginda  
yayo yaku Bethlem'en  
maitasuna eskintzera  
goazen danok ien-bai-len.

**Manterola'tar Gabirel**